

2007KO IRAILAREN 27KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko irailaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren esaten du azken udal hauteskundeetan eta arrazoi ezberdinengatik herriko bi alderdi politiko, Ezker Abertzalea eta Eusko Alkartasuna ordezkaritzarik gabe gelditu direla eta hau horrela izanik eta udal araudi organikoak bere 14. artikuluan ematen duen aukeraz baliaturik, alderdi hauek hitzegiteko aukera izan dezaten nahi dela eta hau dela osoko bilkurara ekartzen den proposamena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez zaiola egokia iruditzen bi alderdiak zaku berean sartzea eta bestalde Udal Araudi Organikoaren 14. artikulua parte hartze espezifikorako dela eta ez generikorako. Gehitzen du ez daudela ados proposamen honekin eta beraz aurka bozkatuko dutela.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du bi alderdiak legez kanpo daudel, arrazoi bat edo bestegatik eta 14. artikulua, bozkatu ondoren interbentzio horiek baimendu daitezkeela aurrikusten du.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du herri borondatea ezin dela isilarazi eta berak bi alderdientzat hitzegin eta bozkatu ahal izatea eskatuko lukeela.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da alkatearen proposamena eta aldeko 9 botu (EAJ, EB-B) eta aurkako 3 botuz (PSE-EE, PP) onartu egiten da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko uztailaren 11n egindako bilkurako akta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du arazo elektroniko bat dela medio ez duela akta irakurtzerik izan eta ea hurrengorako ezin al den utzi.

Alkateak erantzuten dio, horregatik bada akta irakurri egingo duela eta une horretan bertan akta bere osotasunean irakurri egiten du.

Honen ondoren, eta guztien adostasunarekin, akta idatzita dagoen moduan onartu egiten da.

II.- ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA.-

Kredentzialak erakutsiz Ricardo Crespo Rubio bertaratu da zinegotzi kargua hartzera.

Kredentzial hori egiaztatu ondoren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxe honetara bidalitako ziurtagiriarekin bat datorrela ikusten da eta beraz kargua ematen zaio.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZAREN 6. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen seigarren zertifikazioa luzatu du. Seigarren zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA BI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO eta LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOTakoa (82.527,99 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkarte ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Zertifikazio honen kontura ordainketa aurreratzea erabaki zen 2007ko ekainaren 6an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean.

Serna zinegotziak obra nola dihoan galdetzen du epe aldetik eta baita ere desbideraketarik ba al dagoen.

Alkateak erantzuten dio esanez lanak epe barruan dihoaztela eta zertifikatutako partidetan ez dagoela inolako partidarik aurrekontutik kanpo ateratzen denik.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen seigarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

V.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZAREN 7. ZERTIFIKAZIOA.-.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen zazpigarren zertifikazioa luzatu du. Zazpigarren zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA BOST MILA LAUEHUN ETA HIRUROGEITA BI EUROTakoa (105.462,00 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkarte ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Zertifikazio honen kontura ordainketa aurreratzea erabaki zen alkatetzaren ebazpen bidez.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen zatzigarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

VI.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZAREN 8. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen zatzigarren zertifikazioa luzatu du. Zatzigarren zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA BI EURO eta HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMOTakoa (137.622,33 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkarte ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Zertifikazio honen kontura ordainketa aurreratzea erabaki zen alkatetzaren ebazpen bidez.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen zatzigarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) San Jose 1 eta 27 zenbakien arteko atzekaldean, herri lurra eta gero lur pribatuarekin mugatuz dagoen gunen bati buruz galdetzen du, eta gehitzen du gunen horren garbiketari buruz eskariren bat egon dela badakiela eta ea hori nola ote dagoen jakin nahiko lukeela.

Urkola zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez behin baino gehiagotan eskatu zaiola lurjabeari lursaila txukun dezan baina ez dakiela zenbaterainoko borondatea duen jabeak udalari kasu egiteko.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.